Artzape
getariarron topagunea

2018ko maiatza

182. zbk

# 11 EGUNEZ EUSKARAZ ARITZEKO ERRONKA

## USUE ETXANIZ, ZIENTZIA BIZITZEN

**Astillero**
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
*Parrillan espezialitatea*
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

barne diseinua interiorismo
Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com
KATRAPONA

HARRALDE
GETARIA
NAGUSIA 17
☎ 14 07 04

portu
nagusia 12
20808 getaria
943140285

MAISOR
*Kantauriko esperientzia*
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

KAIA KAIPE
JATETXEA RESTAURANTE
Arnao generala, 4 20808 Getaria // 943 14 05 00 // www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

14-15 Euskaraldia: 11 egun euskaraz

23 urpekHARIAK

4 Toponimia
5 Salberak Itsaskabrari
6-7 Iritzia: Aitor Irigoien
7 Artzapetik begira: Kepa Iribar
8 Argazki erreportajea: maiatza jaietan
10-13 Elkarrizketa: Usue Etxaniz
14-16 Erreportajea: Euskaraldia
18 Elan Euskadi
19 Historiaren katebegiak
20-21 Eskubide Sozialen Karta
21 Urritza Aisialdi Taldea
22 Harritarten Txutxupeka
23 urpekHARIAK
24 Komikia
25 Getariako Hitza eta Txikiegia Agian
26 Agenda

2018ko maiatza 182. zbk

Artzape
getariarron topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Kontaktua] 943 000 548 / artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Iure Eizagirre eta Joseba Fuentes.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Jon Ander de la Hoz, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Unai Lorenzo.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Beñat Gereka, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Garbiñe Ibarbia, Getariako Eskubide Sozialen Karta, Getariako Udal Liburutegia, Goiatz Lazkano, Iturzaeta Herri Eskola, Jon Ander de la Hoz, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxue Alberdi, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes eta Xabier Isasti.
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

ANDRES ALBERDI

# Agote, Arano eta Aldazburu

Askizuko hiru baserri-izen ditugu gaurkoak ere. Agote izena, gainera, hiru baserri-izenetan ageri da: Agoteberri, Agotetxiki, Agoteaundi.

**AGOTE.** Esanahiaren aldetik, ez dago irizpide bateraturik adituen artean; etimologikoki izen arazotsua da. Oinarrian, ***agot*** hitza dagoela dirudi, Nafarroako iparraldean (Baztanen) bizi den jatorri ezezaguneko arraza bateko kidea esan nahi duena. Eta *agot* hori okzitanierazko *ca got* (*txakurra*) hitzetik omen dator. Agotek, mendeetan, diskriminazio handia jasan izan dute, beren itxura fisiko diferenteagatik gehienbat. Baina, nonbait, eraikuntza-lanetan oso trebeak ziren; arotz eta hargin bikainak ziren. Agian horregatik Agote izena sarri ageri da Donejakue Bideko herri eta parajeetan. Baina, esan bezala, ez dago argi izenaren etimologia

**ALDAZBURU.** Antzematen errazagoa den etimologia du izen honek; hala uste dute, behintzat, adituek. Bi osagai ditu: *aldats* (*tz*) + *buru*. *Aldats*, euskaraz, nahiko izen arrunta da, eta 'aldapa, malda' esan nahi du. *-buruk*, berriz, 'goi-partea, gaina, tontorra' esan nahi du. Beraz, Aldazburuk *aldapa gaina* esan nahi du. Beste hauen esanahia ere horrela ulertzen da: Mendiburu (mendiaren goiko partea), Aranburu ((h) aranaren goi-partea), Ibarburu…

**ARANO.** Honen etimologia ere argia da, bi osagai hauekin: *(h)aran* + *-no*. *(H)aran* izenak 'ibar' (*valle*) esan nahi du; *-no* atzizkiak, berriz, 'txikitasuna' adierazten du. Atzizki txikigarri hori dago hauetan ere: Etxano (etxe txikia), Artano (arte —zuhaitza— txikia), Egino (mendi-hegal txikia), Iturrino (iturri txikia), Olano (ola txikia), Elkano (zelai txikia)…

Agoteaundi.

Aldazburu.

Arano.

**Oharra:** Gaurko kolaborazio hau da **Herriko Toponimia** saileko azkena. 2013ko azarotik hona, 49 atal izan dira denera. Zuen gustukoa izan bada, ondo ordainduta gaude.

JON ANDER DE LA HOZ

# Soropila ureztatzen

Behin entzun nioan errugbi entrenatzaile bati soropil ureztatuan jokatzeak baduela desatsegin puntu bat, narrats eginda bukatzen delako eta lesio arriskuak handiagoak direlako, baina zelai horietan irabaztea ere beharrezkoa dela liga irabazi nahi bada.

Azken asteetan politikagintzan ere soropila ureztatzen ari dituanaren sentsazioa diat. Has gaitezen etxetik: ekainaren 10eko giza katea —eta estatutuaren berritzea—. Indar erakustaldi bat egitera zihoak Gure Esku Dago; horretarako, Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotu nahi dizkitek. Ez duk, ez, erronka makala —lanean ari diren guztien meritua aitortu beharra zagok—, baina handiagoa duk gizarte zibilaren ehuneko handiena erabakitze eskubidera gehitzekoarena. Hor behar dik izan indargune GEDk, estatutu berriaren zeharlerroak betetzekotan.

Beharrezkoa duk GEDren indar metaketa, noski, baina bulegoan egiten duk politika. Hor hartzen dituk benetako erabakiak, hor pilatzen dualako indarraren monopolioa. Begira, bestela, kataluniarrei: herriaren bultzada handia bahuke epaile, munduko txapeldun. Baina etorri huan estatua, eta zas! Kartzela, erbestea, eta urriko saiakeraren hutsegitea eta orduko imaginario politikoaren dardara. Orain, horri nola eman buelta asmatu beharra zagok, eta hor efektibotasunak besterik ez dik balio.

Lerrook idazten ari nauken bitartean, Zigor, Espainiako telebista kate batean Kataluniako eta Espainiako andre edadetu batzuen programa bat ematen ari dituk. Honela esan dik Sevillako emakume batek: "Badirudi gerra batean daudela, elkar hiltzen ariko balira bezala". Gerra batean ez, xake partida batean ari dituk, hori baituk politika. Gure Esku Dago ari duk euskaldunontzat peoi tropela biltzen; kataluniarrek ere hori ziatean aktiborik onena. Baina, tamalez, peoiek soropila ureztatzen ditek, bidea ireki. Xake matea beste figuren kontua duk. *Realpolitik*.

ZIGOR SAIZAR

# Zoro pila amesten

Arrazoi duk, Jonan, zoro gurpil batean sartuta gaudek azkenaldian: Katalunia, 155. artikulua eta PPri babesa, estatutua berritzea... eta nagok erabakiak hartzen diren bulegoetako horien estrategia ameslarion ametsak basetan sartzea dela. Hi futbol zaletu amorratua izanik, jakingo duk lehen bazirela beraien zelaia nahita ureztatzen ziaten taldeak: ikusita aurkariak hobeto jokatzen zuela, soropila ureztatu basetan jokorik egon ez zedin, nahasmen lokaztu horretatik emaitza ona ateratzeko.

Xake partidako errege-erreginak amaginarreba eta koinatuaren kontuekin zikinduta. Alfilak mundu guztiari aurpegira barrez denoi lapurtutakoarekin aberastu arren, pentsiodun, langabetu eta etxegabekoen botoei esker agintzen jarraitzen diatelako. Zaldi bat Berlinen erbesteratua eta bestea Gasteizen (honek ez zakik Euskadi atzerria den ala ez, *zaldia nauk edo astoa?, 'L' egin behar diat ala zein da nire mugimendua, Andoni?*). Eta dorreak... txalet bihurtuta, igerilekuarekin, soropileko belarra motz moztuta eta ondo ureztatuta... hori bai, eskola publikoaren ondoan, eh!

"Soropila ureztatzen dabiltzan peoiak" baino zoro pila behar dizkiagu ekainaren 10ean, erabakitzeko eskubidearekin amets egiten duten zoro pila. Zoroak xake taula hankaz gora jartzeko, peoien pausoak banaka eman beharrean beraien ametsen bila, alde batera eta bestera egin ahal izateko. Izan ere, ekintzaile ospetsu bati irakurri nioan mundua zoroek mugitzen dutela, zoroena dela mundua, alegia. Ekainaren 10ean zoro bihurtu gaitezela, elkarri eskua emanda ea Getaiko bi kilometroak labur geratzen zaizkigun, Balentziagak hariekin bezala eta Elkanok itsasontziz, munduari itzulia emango diogun getaiar zoro koadrila.

*Realpolitik*? Errege politik ez zagok, Jonan, printze urdinik ez dagoen bezala.

AITOR IRIGOIEN

# E.T.A. orain zer?

Gai delikatua da, zaila. Ertz eta erpin zorrotzekoa. Min eta zauri ugariren zama astuna duena. Posizio kontrajarriak eragiten dituena. Baina, beharbada horrexegatik guztiagatik, hitz egin beharrekoa.

**0. Egun historikoak.** Maiatzaren 3a eta 4a horrela izan ziren, E.T.A. erakundeak bere ibilbideari amaiera eman baitzion, 2010ean hasitako prozesua guztiz gauzatuz. Egun gogoangarriak eta garrantzitsuak, zalantzarik gabe.

**1. Bisai tristeak.** Halako berri onak eman beharko lukeen pozaren ordez, alabaina, iluntasuna suma zitekeen politikari ugariren aurpegietan. 2011ko su-etenaren ostean gertatu bezala. Zergatik, ordea? Zerk azaltzen du hainbeste aldarrikatutakoa lortu ondorengo apatia hori? Kalkulu elektoralek edo boto galera posibleen beldurrak agian?

**2. Gatazka politikoa.** Komunikabide nagusiak E.T.A. desagertuta jada ez dagoela euskal gatazkarik errepikatzen ari zaizkigu. Konpondu dela guztia. Bakean bizi garela orain, normaltasuna erdietsita. Errealitatea desitxuratu besterik ez dute nahi. Izan ere, E.T.A. gatazkaren ondorioetako bat izan da, ez kausa edo jatorria. E.T.A. baino askoz lehenagokoa da gatazka. Politikoa izan dena beti, Espainiak militar bihurtzeko saiakerak egin arren.

**3. Lehenbiziko bala.** E.T.A.k indarkeria erabili izan du, eta sufrimendua eragin. Baina ez da hori izan egin duen bakarra, ezta lehena ere. Biolentzia beste batzuk ekarri zuten Euskal Herrira. E.T.A. sortu aurretik inportatu zuten odolaren —eta beldurraren— mintzoa gure herrira. Indarkeriaren fokua euskaldunongan jartzea ez dator bat errealitatearekin.

**4. Biktimekiko begirunea.** Biktimak ere alde guztietan egon dira. Asko gainera, gehiegi. Hildakoak, bonbardatuak, mehatxatuak, ihes egindakoak, torturatuak, desagertuak... Irudika ezinezko sufrimendua, betirako ilundutako bizitzak, apurtutako familiak eta ametsak... Guzti-guztiekiko errespetu osoa agertu nahiko nuke. Miresmena eragiten du biktima desberdinak elkarrekin hitz egiteko, elkar ulertzeko eta bestearen tokian jartzeko erakusten ari diren gaitasunak. Gehien sufritu dutenak elkarrengana gerturatzeko gai badira, nola ulertu hainbat politikariren eta alderdiren etengabeko gorroto eta mendeku mezuak?

**5. Aukera galduak.** Azkenean maiatzean iritsi da berria. Nahi baino beranduago, baina etorri da. Eta berandutze horren erru guztia ezin zaio E.T.A.ri egotzi. Borroka armatua hainbeste urtetan luzatu izanaren erantzukizuna denona baita. Alderdi politiko guztiena, batzuk, asko kondenatu, baina gatazka konpontzeko ezertxo ere egin ez dutelako, besteak, gatazka gainditzeko ahaleginak egin arren, E.T.A.ren ekintzak publikoki kondenatu ez dituztelako. Lehenago amaitzeko aukerak egon dira: 1998-1999an, Lizarra-Garaziren garaian —euskaldunon elkarlana eta ilusioa inoizko gorenean zirenean— edota 2006-2007 urteetan —Loiolako elkarrizketetan hainbat pauso adostuta zeudenean—. Akatsa izan zen su-eten haiek apurtzea. Beste eragile batzuek ere ez zuten egoerak eskatzen zuen neurria eman, baina gizarteak eskatzen zionari entzungor egin zion E.T.A.k.

**6. Garai desberdinak.** Asko aldatu da gizartea E.T.A.ren sorreratik gaurdaino. Diktadura faxistaren menpeko urte gogorretan, zapalkuntzari erantzuteko eta herria aktibatzeko sortu zen erakundea, herritarren babes handiarekin. Egungo sasi-demokrazian, euskaldunon elkarlanerako galga izaten amaitu du, herritarren babes gero eta txikiagoarekin. Hori bai,

pausoak eman ditu eta bete du gizartea eskatzen ari zitzaiona. Bada oraindik holakorik egin ez duenik...

**7. Espainiaren jarrera (eza).** Alde batek indarkeriari uko egin arren, besteak betikoan jarraitzen du. Iraganeko errezetak errepikatuz, autokritika zantzurik gabe, konponbiderako ate oro itxiz. Oroitzen naiz zenbatetan esaten ziguten E.T.A. gabe denari buruz hitz egin eta erabaki ahalko zela. Haizeak eraman ditu hitzak. Aitzakia infinituen erreinua da Espainiakoa. Aitzakiak gatazkaren funtsari ez heltzeko eta eztabaidarako duten borondate eza ezkutatzeko.

**8. Hurrengo urratsak.** Nola egin aurrera alde batek pauso bakar bat ere eman nahi ez duenean? Nola lortu konponbidera gerturatzea parte batek arazoa bera ukatzen duenean eta entzuteko borondaterik ez duenean? Oinarrizkoa da bestearen eskubideak onartzea, presoen aferari konponbidea ematea, behingoagatik modu askean etorkizuna erabaki dezakeen nazio bat garela aitortzea. Edozein estatu demokratikotik honez gero eginda izango lukeena, alegia.

**9. Aitzakiarik ez.** Ilusiozko aro berri batean gaude. Eta aitzakiek jada ez dute balio. Estatuak ez du aitzakiarik ez hitz egiteko, bere hitza ez betetzeko eta herriari hitza ez emateko. Euskal eskubiak ere ez du aitzakiarik euskaldunon arteko elkarlanari uko egiteko. Eta herritarrok ere ez dugu aitzakiarik ez parte hartzeko.

**10. Denon lana.** Eta orain zer? Herritarron ordua da. Lan asko dugu aurretik, eta guztioi dagokigu gehiago ematea, herri gisa pentsatzea eta jokatzea. Asko kostatu da honaino heltzea. Ez dezagun alferrik gal abagunea. Zor diegu aurreko belaunaldiei, zein ondorengoei. Arduraz jokatzeko unea da. Benetako konponbidea eta bake duina erdiestekoa.

KEPA IRIBAR

# San Mames eta Anoeta

Maiatzak 12. San Mames. Kluben arteko Europako errugbi txapelketa nagusiko finala amaitzeko minutu pare bat falta dira. Markagailuko berdinketa hautsi eta titulua erabaki dezakeen zigor kolpea botatzeko prestatzen ari da Leinster talde irlandarreko jokalaria. Racing 92 talde frantziarreko kideak zain daude. Kirol honetako tradizioari jarraituz, estadioa mutu gelditu da, errespetuz. Katedralean 52.000 lagunetik gora egon arren, ez da ezer entzuten. Urteko partidarik garrantzitsuena erabakitzeko jokaldia izan arren, ikusle horietako askoren gorputzetan garagardo litro dezente dagoen arren, eta bi taldeetako zaleen kirioak dantzan egon arren, ez da ezer entzuten. Ez dago txisturik, ez dago irainik. Hori da kirol legea, gizalegea. Ez ninduen harritu halako keinu bat errugbian ikusteak.

Maiatzak 13. Anoeta. Estadio honek lehen aldiz ireki dizkio ateak emakumeen futbolari, Real-Athletic derbiarekin. Jendetza harmailetan; datu ofizialaren arabera, 21.500 ikusle. Emakumeen futbola, emakumeen kirola irabazle. Badakit erraztasun handiak eman zirela —gonbidapenak etab.— baina, hala ere, sartu egin behar da jende kopuru hori nesken futbol partida batean. Erronka argia da: arrakasta hau ez dadila eman ekitaldi berezietan soilik, ez dadila egun bateko lorea izan. Kopuru horietara iritsi gabe ere —izan gaitezen errealista—, emakumeek egindako kirola izan dadila erakargarri kirolzaleentzat, baina astebururo. Ikaragarri lan pila dago egiteko horretara iristeko, urte asko beharko da ziurrenik, baina urrats bat eman zen Anoetan.

San Mamesko isiltasuna eta Anoetako jendetza. Bi irudi eder asteburu berean. Kirolak —goi mailakoak ere—, gizarte hobea eraikitzen lagundu dezakeela sinesten jarraitzeko bi helduleku. Eliteko kirolak bestelakotik (irainak, keinu itsusiak, azpijokoak, tranpak, errespetu falta...) adibide asko ekartzen dizkigu eta. Dena ez dago galduta; segi jokatzen.

# Antxoa egin berriak, **gaurtik biharrera** prest

Beti bezala, antxoa egin berri-berria eskaintzen du Maisorrek; orain, ordea, **nahi duzun formatuan prestatua** eta **egun batetik bestera**.

MAISOR
*Kantauriko esperientzia*

**Kaia 3**
**943 140 993**

Ia hogei urteko esperientziak ematen duen segurtasun eta lasaitasunarekin.

Eskariak obradorean eta telefonoz egin daitezke.

# Maiatza jaietan

Argazki gehiago
**www.artzape.eus/galeria**
atalean.

SBP Communications

## USUE ETXANIZ IRIGOIEN

# "NIK BIZI DUT ZIENTZIA, NIRE INGURUKOEK SUFRITU EGITEN DUTE"

*Urteak daramatza etxetik kanpo Usue Etxanizek, unibertsitate ikasketak egiteko atera zen lehenik eta lanagatik ondoren. Kaliforniako San Diego hirian bizi da azken ia lau urteetan, hargatik bere "hemen" bakoitzak Estatu Batuetako hiriari egiten dio erreferentzia. Ikerkuntza du bizibide eta zientzia pasio, datozen bi urteetako egitekoa bermatuko dion beka bat jaso berri du.*

TESTUA
*IURE EIZAGIRRE*

***Doktoratu ondokoa egiteko joan zinen Estatu Batuetara, zein izan da zure ibilbidea?***
Bioteknologia eta Bioteknologia Enpresen Kudeaketako lizentziatura egin nuen Madrilen. Gero, Biologia Molekurra eta Biomedikuntza masterra EHUn eta hori egiten ari nintzen bitartean, Biodonostiako laborategian hasi nintzen. Han egin nuen tesia eta bukatzera nindoala, elkarrizketak egiten hasi nintzen doktoratu ondokoarekin jarraitzeko. Bukatu baino lehen Estatu Batuetara etortzeko eskaintza nuen. Tesia bukatu eta hona etorri nintzen.

***Noiz izan zen hori?***
Tesiaren defentsa 2014ko abenduan egin nuen eta hemen hasi nintzen 2015eko urtarrilean. Hala ere, lehenago, azaroan, hilabetez egon nintzen, nire nagusiak hemendik alde egitera zihoan lankide batekin aritzea nahi zuelako hura joan aurretik.

***Duela gutxi doktoratu ondokoa bukatu eta Kaliforniako lanik onenaren saria jaso duzu, ezta?***
Ez dut bukatu, doktoratu ondokoak, tesiak bezala, ez dauka amaiera datarik. Ni dagoeneko doktore naiz baina ikertzaile independente izateko, talde propioarekin, beste prestakuntza bat behar dut. Formakuntza hori da doktoratu ondokoa. Aldizkarietan egindako argitalpenek, zure ikerketen emaitzek eta abarrek ere baldintzatzen dute hori.

Doktoratu ondokoaren bukaera aldean nago eta saritu naute hiru urte hauetan egindako lanagatik eta erakutsitako potentzialagatik.

***Nola hartu duzu saria?***
Nazionalki aitortzea, gainera, Estatu Batuetan... Ez da edozein leku, hemen lehia handia da, mundu osoko jendea dago, ni bezala, aukera txiki horren bila eta denen artean nire izena ateratzea...


Usue Etxaniz. /Arg.: SBP Communications

## "Hiru urte hauetan egindako lanagatik eta potentzialagatik saritu naute"

Usue Etxaniz, gurasoekin, Coloradoko Arroila Handian, iaz. /Arg.: Usue Etxaniz

Finalista bezala oso gustura nengoen eta elkarrizketa egin ondoren, bizpahiru egunetara, esan zigutenean, negarrez hasi nintzen, pozez.

Ez nuen inondik inora espero eta hori lortzea lasaitasun puntu bat da. Beka bi urtetako soldata eta nire garapen profesionalerako 5.000 dolarreko sari bat da. Horrek datozen bi urteetan ate asko jo zein konexioak egiteko aukera handia emango dit.

***Zein eragin izango du zure bizimoduan?***
Hemen lan egiteko beharrezkoak dira bisak. Kanpotarroi horiek bata bestearen atzetik lortzeak arazoak sortzen dizkigu; nirea 2019ko azaroan bukatzen zen, beraz, ordura arteko epea nuen hurrengoa lortzeko. Hala ere, bikotea nire bisari esker ari da lanean, eta hurrengoarekin berak ezingo luke lanik egin.

Hemen, soldata bakarrarekin bizitzea zaila denez, gainditzeko modua *Green Card* (Txartel Berdea) ateratzea da; horrekin ez da gehiago bisarik behar. Amerikako bizilagun gisa onartzen zaituzte nahiz eta amerikar ez zarenez, ezin duzun, besteak beste, bozkatu.

Nire bikoteak hori atera behar du lana egin ahal izateko, baita nik lanean jarraitzeko ere; zer egin ez genekien, izapide eta diru asko baita. Aztertu genuen Euskal Herrira itzultzea ere baina han egoera ez da oso itxaropentsua zientzia arloan, hara joatekotan, epe erdi-luzerako aukerarekin egin nahiko genuke.

Beka nahasmen horren erdian heldu da eta izugarrizko poza sentitu dut. Batetik, nire ofizioa batzuetan

oso frustragarria delako, lan asko egin arren emaitzak lortzea erraza ez delako; eta bestetik, hemen bi urte bermatuta edukitzeak ematen duen lasaitasunagatik.

Niretzako, eta batez ere, nire ingurukoentzako da saria. Beti esaten dut niri zientzia gustatzen zaidala, eta nik bizi dudala baina nire ingurukoek sufritu egiten dutela, ia beti distantzia tarteko. Nire gurasoentzat, mutilarentzat, anai-arrebentzat, lagunentzat... hainbeste kezka zein tristura elkarbanatu ondoren, errekonozimendua iritsi da eta horrek poz handia ematen digu guztioi.

Gainera, bekaz aparte, argitalpen bat onartu didate hedabide batean (*Nature Cell Biology*); dena batera etorri da. Badakit beste bizpahiru urte gogorrak izango direla baina gauza txikiek indarra ematen dizute orain arte egindakoa baloratu eta geratzen zaizuna indar gehiagorekin hartzeko.

### *Zer landu duzu doktoratu ondokoan?*

Batez ere zelula amekin egiten dut lan, horien bereizgarria da zelula mota asko emateko gaitasuna dutela.

Tesian, zelula amak azalean lantzen hasi nintzen; aztertu genuen, adibidez, zauriak orbaintzeko prozesua. Ikusi genuen azaleko zelula batzuk nerbioetatik sortzen zirela, eta gaixotasun neurologikoetarako aplikazio ezberdinak ikertu genituen, esate baterako, Alzheimer edota paralisia duten gaixoentzako tratamendu berriak. Hobekuntza batzuk bazeudela ikusita, muskulura jauzi egitea erabaki nuen.

Muskuluaren beraren birsortzera bideratu eta hori ulertuta, nahi nuen jakin gaixoari nola lagun diezaiokegun gaixotasuna hainbeste ez garatzen eta sendabideak bilatzen. Horiek oso zailak dira, beraz, hala hartzen dut gaitzaren aurka joatea, garapen hori etetea, nahiz eta guztiz ez sendatu, azken finean, bizitza kalitatea hobetzea.

Zehazki, bi proiektutan nabil. Batek distrofia muskularra aztertzen du, ezagunenetakoa da Duchenne. Gaixoek umetatik sufritzen dute eta oso gazterik hiltzen dira arnas arazoengatik, diafragma, arnasa hartzea bideratzen duen muskulua, guztiz paralizatzen baitzaie. Puntako teknologiari esker, zelulak banaka analizatzen ditugu eta argazki errealagoa lortzen dugu. Ikusi ditugu distrofia mota honetarako aplika daitezkeen gauza batzuk.

Bestetik, niri arreta handia pizten didate nerbioek eta odol garraioak, hau da, zain eta arteriek. Gorputzeko organo guztietan daude, oxigenoa eta nerbio-transmisioa behar dutelako. Hain zuzen ere, nerbioen transmisioa mozten denean, muskulua nerbio estimulurik gabe geratzen da, atrofiatuz. Konturatu gara badaudela zelula batzuk esnatu eta gauzak gaizki egiten hasten direnak. Zelula horiek muskulu normal batean sartzean, hori ere gaixotu eta atrofiatu egiten dute. Hor nerbioak ondo daude, beraz, saiakerak egiten ari gara tratamendu berriak diseinatzeko. Hau guztia sintoma gisa atrofia duten gaixotasun neuromuskularretara bideratuta dago: alboko esklerosi amiotrofikoa, paralisiak, atrofia muskularrak...




Kanadako kongresu batean, bere lanaren ideiak jasotzen dituen poster batekin. /Arg.: U.E.

Etxaniz bere lana aurkezten *Alternative Muscle Meeting* izeneko kongresuan. /Arg.: AMC.

***Nola antolatzen zarete lanerako?***
Sanford Burnham Prebys Medical Discovery Instituten nago, arlo dezente ditu eta nirea *Development, Aging and Regeneration Program* da (Garapen, Zahartze eta Birsortze Programa). Bakoitzak bere nagusia du, nirea italiarra da eta taldean hiru doktoratu ondoko eta bisitan dagoen ikasle bat gaude.

Hasi nintzenean zortzi geunden, horrek esan nahi du Estatu Batuetan diru pila bat eta ikerkuntza ikaragarri ondo dagoela pentsatu arren, hemen ere askotan ez dela erraza finantzaketa lortzea. Niri ez dit institutuak ordaintzen, talde bakoitza oso independentea da eta nagusi bakoitzak borrokatu behar du bere taldea eta kideak mantentzeko.

***Hemengo laborategietan ere ibilia zara. Desberdintasuna nabari da?***
Bai. Kanpora ateratzeak asko aberasten du, ez ikerketan bakarrik.

Espainian badaude oso puntako pare bat zentro, baina pare bat dira. Nire zentroan, Biodonostian, jendeak oso ikerketa ona egiten zuen; asko kanpoan ibili eta itzulitakoak dira. Maila badago, arazoa finantzaketa falta da. Bost urteko ikasketak, master bat, tesi bat, eta oraindik ere mila euroko soldata ezin baduzu bermatuta eduki, zertaz ari gara?

Han goi mailako ikerketa egin dezakezu, baina Estatu Batuetan hiru hilabetetan egiten dituzun gauzetarako hiru urte behar dituzu, dela izapideengatik dela burokraziagatik. Gainera, San Diego oso polo txikia da eta ikaragarrizko zientzia dago, baita kolaborazioa ere.

Euskal Herria Espainia baino maila bat gorago ikusten dut baina, hala ere, ezin da hemengoarekin konparatu.

***Finantzaketa falta aipatu duzu. Non dago, zure ustez, aldea?***
Ezberdintasun nagusiena kulturala dela esango nuke. Han jendearekin hitz egitean, beti eduki dut sentsazioa asko baloratzen dela gure lana eta jendea jakitun dela zein garrantzitsua izan daitekeen ikerketan inbertitzea, bai gobernuetatik bai funts pribatuetatik. Gero, behar denean, ez dago ezer.

Hemen, adibidez, jende dirudun askok beraien dirua edo zati bat, behintzat, ikerketarako ematen dute. Nire beka ere fundazio pribatu batek ematen du. Oso dirudunak dira baina jakitun dira jendeak zein behar dituen. Ez dut esango musu-truk egiten dutenik baina horrelako asko dago.

Bestetik, han ikerketa arma gisa erabiltzen dute politikariek. Orain, adibidez, petsiodunekin eta erretiro-planekin dabiltza; ikerketa ere izan da batzuen alde eta besteen kontra erabiltzeko gai bat.

Estatu Batuetan azken urteetan izan dira murrizketak baina politikariek presio handia egin dute esanez ikerketa ez dela jolaserako eta hortik ezin dela kendu.

***Amaitzeko, nolakoa da zure bizimodua San Diegon?***
Kaliforniako pentsaera eta bizi estiloa naturari oso lotuta daude, eguraldia ona da urte osoan eta beti zaude naturarekiko irekita.

Norbera antolatzen da. Ni, adibidez, ez naiz astebururo lanera joatekoa, larunbat eta igande jai hartzea gustatzen zait. Askotan, esperimentu bat martxan badaukat, egokitzen zait joatea; bestela, astelehenetik ostiralera. Halere, hemen ezin da lanetik atera eta lagunekin zerbait hartzera joan, prezioengatik. Ondorioz, kalean baino gehiago zaude etxean, batzuetan lagunekin. Tarteka afariren bat, asteburuetan barbakoa, surfera joan, mendi-bueltaren bat egin...

Euskal koadrila bat ere badugu eta haiekin egiten ditugu halakoak, tarteka. Baina asko botatzen da faltan Euskal Herriko bizipoza, jendearekiko tratua, hemen ez dago; amerikarrak oso itxiak dira, zaila da beraiekin tratua edukitzea.

## *"Han goi mailako ikerketa egin dezakezu, baina Estatu Batuetan hiru hilabetetan egiten dituzun gauzetarako hiru urte behar dituzu"*

Etxaniz eta lankide zein lagunak ospakizun batean. /Arg.: U.E.

***"11 egun euskaraz" lelopean egingo da Euskaraldia, hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen praktika. Bi profil bereiziko dira: "Ahobizi"ak eta "Belarriprest"ak. Lehenak, euskaraz aritzeko pronto; bigarrenak, entzuteko gogotsu.***

Testua
IURE EIZAGIRRE

Euskaraldia

# 11 EGUN HIZKUNTZA OHITURAK BERRAZTERTU ETA ALDATZEKO

*Ziur inoiz gertatu zaizula lagun talde euskaldun batean egonik hizkuntzaz aldatzea kideetako bat gaztelaniaduna delako. Ez berari ez zeure buruari galdetu gabe ulertzeko gai ote den; hala balitz, jarrai zenezakete-eta euskaraz. Lasai, denok egin dugu, uste baino maizago.*

Baita edozein saltoki edo arreta zerbitzudun gunetara joan eta geure hizkuntzan beharrean, erdaraz egitea lehen hitzak. Ez al duzu pozarren hartzen euskarazko erantzuna?

Geure burua euskalduntzat dugunok ere uste baino sarriago hartzen ditugu horrelako jokabideak —euskararen galera dakarten bestelako batzuk ere bai—. Arrazoi batengatik edo besteagatik hizkuntza ohitura jakin batzuk garatzen ditugu, bai gure ingurukoekin bai hala ez direnekin ere. Hizkuntzarekiko dugun jarreraz pentsarazi eta aldarazteko asmoz ari dira antolatzen Euskaraldia.

Helburua da euskara menperatzen dutenak, hala moduz moldatzen direnak zein ulertzen dutenak 11 egunez ahalik eta gehienetan mintzatzea horrela. Lehen asmoa, hobeki esan; izan ere, epe horretaz haragoko ohitura izatea bultzatzen dute sustatzaileek.

Orotariko erakunde eta eragileak —Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, udalak, euskarazko hedabideak, elkarteak...— daude egitasmoaren atzean eta garbi dute Euskaraldia ez dela kanpaina bat, herritarren borondatetik ateratako praktika bat baizik. Horri esker erakutsiko dute posible dela euskaraz egitea egun baino leku gehiagotan. Horretarako, euskaraz dakitenen eta erabiltzen edo menperatzen ez dutenen arteko adostasuna bilatuko dute azaroaren 23tik abenduaren 3ra.

Getariak, Euskal Herriko beste ehunka herrik bezala, bat egin du egitasmoarekin eta lehen urratsak ematen ari dira Udaleko Euskara Saila, Artzape Euskara Elkartea eta atxikitzen doazen hainbat elkartetako ordezkariak.

## "Ahobizi" eta "Belarriprest"

Ekar ditzagun berriro gogora sarreran aipatutako lagun taldeko kideak. Pentsa dezagun zure jarreran, euskaldun gisa: lagun gaztelaniadunaren aurrean alboratu egin duzu euskara. Euskaraldian parte hartzea erabakiz gero, lagunak *Belarriprest* dioen txapa daraman begiratuko duzu eta hala bada, euskaraz egingo diozu, bai baitakizu menperatu ez arren, entzuteko prest dagoela.

Horrez gain, euskaraz egingo diezu ulertzen duten guztiei; ezagutzen ez dituzunei ere hala zuzenduko diezu lehen hitza, ulertzen badute, baita handik aurrerakoak ere. *Ahobizi* izango zara 11 egunez, eta hala dioen txapa izango duzu soinean. Horri esker, zure lagun gaztelaniadunak nahiz gainerakoek jakingo dute zein hizkuntzatan ariko zaren beraiekin.

Zure lagunak, lehenago esan bezala, *Belarriprest* txapa izango du eta horrekin adieraziko dizue inguruko guztioi berari euskaraz zuzendu zaitezketela. Ezagutza edo gaitasunaren arabera, erabakiko du hizkuntza berean erantzun edo erdarara jo.

Bi profilotako bat bete eta Euskaraldian parte hartzeko ezinbestekoa da 16 urtetik gora izatea. Horrez gain, *Ahobizi*ek euskara menperatu edo, gutxienez, erdizka moldatu beharko dute, prest sentitzen badira,

egin baitiezaiekete euskaraz ulertzen dutenei. *Belarriprest*etan bestelako jendeak eman dezake izena: euskaraz ongi egin arren, ohituraz, zenbaitekin gaztelaniaz hitz egin eta hori aldatzeko prest ez dagoenak; euskaraz gutxi gorabehera eginda ere, ausartzen ez denak; eta ulertuta, hitz egiteko gai sentitzen ez denak.

Pertsonok, aurreikusitakoaren arabera, ez dute beraien egunerokotasuna aldaraziko duen ekintza berezirik egin beharko aipatutako egunetan, hizkuntza ohiturak egokitzea salbu.

## *Herritik antolatua*

Zenbait instituzio eta elkartetatik bultzatu bada ere, herri bakoitzak bere Euskaraldia antolatzea da asmoa, ahal den neurrian, bertako egoerara egokituta. Horretarako talde eragilea eratu behar da lehenik, jendeari egitasmoaren berri eman eta parte-hartzea sustatu ondoren. Formakuntza jasotzeko fasea izango da praktika martxan jarri aurreko azken urratsa.

Getaria talde eragilea sortzeko fasean dago, eta egun gutxi barru egingo da jendaurreko aurkezpena. Animatzen diren herritarrek irailean egin beharko dute izen-ematea eta urrian aurreikusten dira trebakuntza edo azalpen saioak.

## *Neurketa Soziolinguistika Klusterrak*

Parte-hartzaileek nabarituko dute beste inork baino hobeto euskararekiko izandako aldaketa, baina, nolabait, gizarte mailako eragina ezagutzeko, Soziolinguistika Klusterrak ikerketa burutuko du metodo kualitatibo nahiz kuantitatiboak erabiliz.

Batetatik, hizkuntza ohiturak aldatzeko prozesuak aztertuko ditu, gizartea aktibatzeko gakoak zeintzuk diren jakiteko. Bestetik, ekimenaren arrakasta neurtuko du, parte-hartzea, antolamendua eta horren eraginkortasuna kontuan izanda.

Neurketa kuantitatiboari dagokionez, hiru galdeketa egingo dizkie nahi duten parte-hartzaileei: aurrena hasi baino egun batzuk lehenago, bestea Euskararen Nazioarteko Egunetik gutxira eta azkena hiru hilabetetara. Arlo kualitatiboan, Euskaraldia bukatzean, parte-hartzaileen eta antolatzaileen bizipenak eta zailtasunak jasoko ditu.

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

azkuelek

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Maxi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

TXUKUN
LORAZANTZA, S.L.
Lorezaintza, mendiko lanak, indusketak, itxiturak...

660 332 756 - 679 428851
txukunlorazantza@hotmail.com

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

aranola
PVC eta Aluminiozko lanak

Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86

Taberna
Mayflower
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539

elan euskadi
ONGD - GGKE

# Ongizate estatua

Ongizate estatua, bereziki, Bigarren Mundu Gerraz geroztik eta Europan garatu zein gauzatu den estatu eredu bat da. Kapitalismoak sortzen dituen ezberdintasun eta bazterketa egoerak samurtzea du helburu. Estatu horretako hiritar guztiei prestazio, laguntza eta zerbitzuak eskaintzen dizkie: hezkuntzan, osasunean, lan arloan, etxebizitzan, etab. Eskubide sozialak arian-arian lortu dira, borroka sozialetan aritu ondoren. Ez zaizkigu ustekabean iritsi orain hain gureak ditugun pentsioak, langabezia prestazioa, osasun publikoa, doako hezkuntza edo babes ofizialeko etxeak.

Baina, ohiturak ziztu bizian aldatzen ari dira gure gizartean eta memoria laburra dugu. Bakoitza geurean gabiltza, norbera da lehentasuna eta albo batera utzi ditugu talde ekintzak, aldarrikapenak, elkartasuna, kooperazioa... "Ez dut denborarik", "presaka nabil", "okupatuta nago" edo "nekatuta nabil", ahoan ditugun esaldiak dira talde bateko partaidetza proposatzen digutenean.

Gure gizartean dugun antolaketa eredua babes sistema bezala ulertu daiteke eta onetik asko du, baina ez da perfektua. Tamalez pertsona ugari dira babes sistematik kanpo daudenak edo parte izanda ere, ez dutenak nahiko laguntza kapitalismoak sortzen dituen desberdintasunak leuntzeko. Eta horren aurrean zer?

Hemen ditugu gure nagusiak, beste behin erakustaldi ederra ematen. Eta ez hitz hutsekin, beraiek eredu ipinita baizik. Pentsiodunak egiten ari diren borroka soziala ikusgarria da. Inor iraindu gabe eta kalte materialik sortu gabe, baina tinko mantenduz. Presarik gabe baina solidaritatez jokatuz. Ez bakoitza berea eskatzeko asmoz, baizik eta aldarrikapen orokorrak egin eta pentsiodun guztientzat hobekuntzak lortzeko intentzioarekin.

Jarraitu dezagun denon artean egoera hobetzen. Posible da eta ahal dugu, eta bestela begiratu pentsiodunei! Egia da, beraien alde dutela hain talde handia izatea, pisu gehiago baitute erabakiak hartzen dituztenen aurrean. Baina ongizate estatua eta eskubide sozialak lortzeko egin beharreko gudak ere ez ziren egun batetik bestera garaitu. Orain gure ardura da aurrekoek lortutakoa ez galtzea eta hobetzen saiatzea!

**ZAINTZA EGUNAK**

**Ekainaren 4tik 8ra.**

**FULDAIN FARMAZIA**



**Udaletxeko artxiboetatik**
EREITEN Kultur Zerbitzuak

# Tren geltokia izan genuenekoa

Zuetako zenbatek pentsatu ote duzue "gure herrian tren geltokia izango bagenu?". Egun, ondoko bi herrietara begiratuz gero, hobeto komunikatuta daudela esan daiteke inongo beldurrik gabe. Getaria, Zarautz eta Zumaiaren arteko alderaketa eginda, hiruek dauzkate antzeko aukerak itsas-garraioari dagokionez, baina lurreko garraioan kontua aldatu egiten da. Bai, autobusez komunikatuta daude hiruak, errepidez aukera hori baitago, baina trenbideak ematen dituen abantailetatik at geratzen da Getariako herria.

**1948ko Elgoibar eta Donostiaren arteko trenbidea. Bertan, *Oiquina* izenarekin agertzen da 50 urte lehenago *Guetaria-Oiquina* geltokia zena. / Argazkia: ferropedia.es/wiki/Compa%C3%B1%C3%ADa_del_Ferrocarril_de_Elgoibar_a_San_Sebasti%C3%A1n.**

Compañía del Ferrocarril de Elgoibar a San Sebastián izan zen kostako trenbidea eraikitzeko erabakia hartu zuen enpresa, XIX. mende amaieran. Elgoibarretik Donostiarako linea honetan bai Zarauztik bai Zumaiatik igarotzen zen trenbidea, Getaria alde batera utziz. Esan beharra dago linea hau gaur egun Euskotrenek erabiltzen duenaren oso antzekoa zela. Horregatik ez dauka gure herriak tren geltokirik, nahiz eta linea ireki zen momentuan, itxura egiteko bazen ere, geltoki batean Getariaren izena sartu zuen gorago aipatu dugun enpresak, *Guetaria-Oiquina*. Udal akten arabera, enpresaren erabakia ez zen gustagarria izan Getariako Udalarentzat eta geltokiari izena aldatzeko eskaera egin zuen.

1901eko ekainaren 30eko udal aktan argitzen da nola aipaturiko enpresak *Guetaria-Oiquina* izeneko geltoki bat jarri zuen, bilkuran zeudenek diotenaren arabera, geltokitik "*sin ninguna clase de camino que pueda conducir al casco de esta villa ni a ningún caserío de ella, resulta que con tal estación se lleva a engaño a la personas de Bilbao, San Sebastián...*". Hau dela eta, 1901eko urriaren 26ko udal aktak dio idatzi bat bidali zitzaiola tren konpainiaren lehendakariari egoera azalduz. 1901eko abenduaren 15eko udal aktan Getariako Udalaren agindua zein izan zen argitzen da: ken dezatela herriaren izena geltokiko errotulutik!

Hau ikusita, pentsa daiteke Getaria inkomunikatua geratu zela, baina 1902ko urtarrilaren 4ko udal aktak jakinarazten du arazo honen aurrean, Zarauzko geltokira bideratutako kotxe-zerbitzua ezarri zela.

Errealitate honen aurrean, denbora gutxiz izan bazen ere, harro esan genezake Getariak tren geltokia izan zuela, nahiz eta askorako ez balio izan.

# "Juridikoki bikain jokatu genuen"

Otsailaren 19an Ainhoa Intxaurrandieta eta Igor Meltxor gonbidatu genituen Getariara. *Angula Ustelak* deitu zen elkartasun biraren barruan herrian beraien esperientzia eta ikerketen berri ematera etorri zitzaizkigun. Orduan esandako/entzundako pasarte batzuk ekarriko ditugu hona, kasua oso larria baita:

**Dokumentazioaz**

"Dokumentazio ugari falta zela ohartu ginen. Bilera garrantzitsu batzuetako aktetan, beste bilera batzuei egiten zioten erreferentzia, baina bilera horietako aktak falta ziren".

**GHK-ko teknikariaren ordenagailuan zeuden dokumentuez**

"Errauste plantako zuzendaria izango zenaren —GHK-ko teknikaria— laneko ordenagailua eskuratu —lantokitik eraman egin baitzuen, lapurtu— eta Espainiako Estatuan dagoen informatiko forentse adituenetako bati eman genion, ordenagailuan zer gertatu zen azter zezan. Hark egindako txostena oso argia izan zen: inoiz baino goizago lanera joan zen egun horretan, goizeko zazpiak eta hamahiru minututan, ordenagailuan gordeta zeuden artxiboen ezabaketa hasi zuen. 70.000 artxibo ezabatu zituen, modu seguruan; alegia, berreskuratu ezin bilakatu zituen. 149 artxibo soilik berreskuratu ahal izan genituen eta hauen garrantzia ikusita, ezabatu zirenak oso garrantzitsuak zirela susma daiteke.

Salaketa jarri genion. Bere kontrako epaiketa atzeratzea lortu zuen eta 2015eko hauteskundeen ondorioz, EAJ eta PSEk hartu zuten gehiengoa berriro ere GHKn. Lehenengo Administrazio Kontseiluko bilerako lehenengo erabakietako bat, pertsona honen kontrako salaketa kentzea izan zen".

**Hondakin organikoak garraiatzeko kamioien kontratazioaz; bertako teknikari batez**

"...GHK-ko teknikariari ordura arte enpresei kamioiak ordaindu eta kontratu amaieran oparitu egiten zitzaizkiela erantzun nion, eta ez zidan ukatu. Kontratu horren eta beste batzuen gainean egon ez bagina, kamioiak enpresei oparituko zitzaizkien —trailer oso bat eta bi trailerren erdiak—. Teknikari hori, orain, EAJko zinegotzia da".

**Erraustegiaren eraikuntzaz**

"Orduko GHK-ko arduradunak jakitun ziren, ingeniaritza batek hainbat txostenetan hala jakinarazi zielako, errauste plantarekin arazoak izango zituztela, gaindimentsionatuta zegoelako. Baina 2011ko maiatzean sinatu zuten eraikitzeko kontratua, hauteskundeak baino astebete lehenago.

Ordenagailua eraman zuen teknikariak eraikuntza enpresa horietako batean egiten du lan gaur egun".

**Erraustegia eraikitzeko maileguez**

"Europako Inbertsio Bankuak exijitutakoaren aurka, EAJ eta PSEko ordezkariek Caixari eta Banestori erosi zizkioten produktuek, GHK hilero-hilero 600.000 euro ordaintzera behartzen zuen, maileguko dirua erabili edo ez. Gipuzkoarroi 90 edo 100 milioi euro kostatuko zaigu".

**Carlos Ormazabal (GHK-ko lehendakaria EAJren garaian) eta SWAPaz**

"Caixak Carlos Ormazabali 'komenigarritasun testa' egin

# Udalekuak eta Txiki Txokoa

zion SWAPak kontratatzeko gai ote zen edo ez erabakitzeko, eta produktua ulertzeko gaitasunik ez zuela ondorioztatuta, produktua ez sinatzea gomendatu zion. Astebete pasa ondoren, beste test bat egin zion eta honetan kalifikazioa aldatu zion. Astebetean, nonbait, kontratu finantzarioak ulertzeko gaitasuna eskuratu zuen.

SWAPak sinatu zituen orduan. Sinatu ziren une berean, 5,6 milioi euroko galerak izan zituen GHK-k, sinatze hutsagatik".

Ainhoaren esan batekin bukatuko dugu: "Egin genuena ondo egin genuen eta berriro egingo genuke". Harro gaude egindakoarekin, eta aurrera. Aupa zuek! Gora bizitzak!

## *Bestalde*

**Gizarte ekimeneko langileak, tartean getariarrak, borrokan jarraitzen dute beraien eskubideen alde. Animo eta aurrera!!!**

Kaixo, urritzazaleok:

Aurten negua uste baino luzeago joan da, baina ez kezkatu, Urritzak inoiz baino gogo eta indar gehiagorekin prestatu baitu uda.

Uztailean, beste urteetan bezala, udaleku irekiak eta Txiki Txokoa eskainiko ditugu. Bada denbora Urritzako kideok dena prestatzen eta antolatzen ari garela. Prestakuntzan, informazio bileran jasotako zuen proposamenak kontuan izan ditugu, baina horiez gain, ekintza berri eta dibertigarriekin ere topatuko zarete bi egitasmo horietan.

Maiatzaren erdialdean izan zen izen-ematea eta zuei esker, oso arrakastatsua izan zen. Urritzak eskerrak eman nahi dizkizue gugan jarritako konfiantzagatik, hau dena ez baitzen posible izango zuen laguntzarik gabe.

Beraz, hemendik aurrera udaz gozatzea besterik ez zaigu geratzen, bai zuei eta bai guri. Beste urte batez, denon artean uda ahaztezina izatea lortu behar dugu. Guk gure lana egiten jarraituko dugu, eta uztailaren 2an elkar ikusiko dugu.

Bitartean zintzoak izan.

Urritzakoak eta herriko umeak mozorrotuta.

# Aranzadira bisita

Maiatzaren 11n Donostiako Aranzadi Zientzia Elkartera joan ginen 3. eta 4. mailako neskamutilak. Gelan lantzen ari garen *Unibertsoa* gaiarekin lotutako bisita izan zen. Baina, horrez gain, Aranzadi Elkarteari buruzko informazio zabala eman ziguten.

Bisita hiru zatitan banatuta zegoen. Hasteko unibertsoari buruzko bideotxo bat ikusi genuen: interesgarria eta polita!

Ondoren, mailaka banatu ginen. 4. mailakooi Jon izeneko biologo batek Aranzadin dauden atal desberdinak erakutsi zizkigun. Aspaldiko bizidunen aztarnak (hezurrak, armak, fosilak, tresnak, larruak...) ikusi genituen sail batean.

Beste batean, era desberdinetan kontserbatutako animalia eta landareen bilduma: sugeak, dortokak... alkoholez betetako ontzitan; tximeleta disekatuak, orri arteko hostoak, etab.

Ondoren, bizirik zeuden uhandreak aztertu genituen baita bertako liburutegia ezagutu ere.

Bitartean, 3. mailakoak unibertsoari buruzko jardueran egon ziren.

Hamaiketakoa egin eta gero, bi taldeak aldatu ginen.




Guk Virginiarekin unibertsoko tailerra egin genuen: ariketa batzuk, galderak erantzun eta bideoa ikusi genuen, hainbat gauza gogoratzen eta ikasten: eklipseak, urtaroen sorrera, Lurraren mugimenduak, ilargiaren faseak, kometak zer diren, solstizioa... Eta bisita bukatu zen!

# Getariako Mikro-Ipuin Lehiaketa azken txanpan

Getariako Udal Liburutegian, **12-16 urteko gazteei zuzendutako Instagram bidezko Mikro-Ipuin Lehiaketa** antolatzea erabaki dugu oraingoan. Lehiaketan parte hartu nahi duenak, **ekainaren 15era arteko epea** izango du lanak aurkezteko.

Argazkiz eta testuz osatutako mikro-ipuinak jaso nahi ditugu, eta itsasoarekin lotura dutenak, gainera; itsasoarekin, hondartzarekin, itsasargiekin, itsasoko animaliekin, itsas-munstroekin, naufragioekin, piratekin... proposatutako gaia itsasoa bezain zabala baita. Lehiaketan parte hartzeko bete beharreko baldintzak honakoak dira: 2002 eta 2006 urteen artean jaiotakoa eta Euskadiko Liburutegi Sareko bazkide izatea. Testuak euskaraz idatzita egon beharko du, eta, lehiaketan parte hartu ahal izateko, honako pausoak jarraitu behar dituzu:

1. Argazki bat atera edo irudi bat sortu.

2. Instagramera igo, *#GetariaMikroIpuin2018* traola erabiliz eta *@getariako.liburutegia* etiketatuz.

3. Argazkiarekin edo irudiarekin batera, itsasoarekin lotura duen ipuin labur bat idatzi, gehienez ere, 150 hitz erabiliz.

4. Argitaratu!

Erraza, ezta? Eta zeren zain zaude zure lana(k) argitaratzeko? Parte-hartzaile bakoitzak nahi adina lan (argazkia/irudia + mikro-ipuina) aurkez ditzake; hori bai, lanak, argitaratu gabekoa, originala eta beste lehiaketa batean saritu gabekoa izan beharko du.

**Epaimahaia eta saria**

Getariako Udaleko Kultura eta Euskara teknikariek, Udal Liburutegiko liburuzainak eta diseinatzaile grafiko batek osatuko dute epaimahaia, eta, lanak aztertu ostean, ekainaren 25ean emango dugu irabazlearen berri. Gure sare sozialak —Instagram, Twitter, Facebook— erabiliko ditugu horretarako. Adi, beraz!

Lanak epaitzeko erabiliko diren irizpideak, lanaren originaltasuna, hizkuntzaren zuzentasuna eta irudiaren kalitatea izango dira, baita irudiaren eta ipuin laburraren arteko lotura ere. Azkenik, jasotako "Atsegin dut" kopurua ere kontuan hartuko dugu.

Sariari buruz... irabazle bakarra izango du lehiaketak, baina, pertsona horri, lau proposamenen artean erabakitzeko aukera emango zaio: Oñatiko Arrikrutz kobetan abenturazko bisita espeleologikoa —hamar laguneko taldeak onartzen dira—, zetazeoen begiztatzea MATER itsasontzian —bi lagunentzako irteera—, Mendexa Abentura Parkera sarrera —hiru zirkuitu egiteko aukerarekin— eta *stand up paddle* saioa —lau lagunentzako—, ala Oria ibaiaren jaitsiera kayakean —zortzi lagunentzako—.

Eta jakina, zalantzaren bat izanez gero, liburutegira gerturatu eta galdetu lasai: 17:00etatik 20:00etara (astelehenetik ostiralera), San Roke kaleko 2. zenbakian izango gaituzue (tfnoa.: 943 896147 / e-posta: libgetaria@gmail.com).

**Pepita Enbil gogoan**

Ekainaren 4ko astean, bestalde, Elkano Musika Eskolak antolatutako Pepita Embil Musika Zikloarekin bat egingo dugu. Egitarau zabala prestatu dute eta, liburutegian ere, Musikaren Txokoa izenekoa atonduko dugu egun horietan, nahi duenak, musikari lotutako ipuin, liburu, komiki eta DVDak eskura izan ditzan. Irakurri, entzun... gozatu!

EDURNE IRIGOIEN

# PLIST & PLAST

Bidaltzailea
ARTZAPEKO LANTALDEA

# GIREZPITAN

Getariarren bat ez da aparte izango, ***girezpitan***, ***girezpitara***, ***girezpitako***... entzuten badugu, estandarragoak diren *gerizpe(t)an*, *gerizpe(ta)ra*, *gerizpe(ta)ko*... (edo esanahi bereko diren *itzalean*, *itzalpean*) entzun ordez. Nahiko ezaugarri geurea dugu *girezpitan* modu hori. Ez daukate jasota hiztegiek.
Itxura guztien arabera, ***gerizpe/girezpi*** metatesia egiten dugu hor getariarrok; hau da, hitzaren barneko letrak lekuz aldatzen ditugu. Horrelakoak ez dira gertaera arraroak euskaran; erreparatu, bestela, adibide hauei: (izen arruntetan) *euskara/eskuara*; *hodei/hedoi*, *ikutu/ukitu*; *iruditu/iduritu*; *tximeleta/mitxeleta*...; (izen berezietan) *Euskal Herria/Eskual Herria*, *Arbeldi/Alberdi*...

---

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *artzape@topagunea.com* - era ezagutzen dituzun hitzak.

Idazlea
AMAIA IRAZABAL

# GAUZA BERA

Gauak argitu ditu jada farolak,

normalean baino beranduago da.

"Zoriontasunaren kurba" pasa dute berriro,

pedalak zanpatuz, astiro.

Bidea oztopatu zien txakurraren jabeak

musu eman dio gaur agurtzerakoan

eta gorritu egin da.

Belardiaren hezetasuna zuen, ustez,

oraindik galtzetan itsatsita.

Egunak. Lanketak. Gurutze eta kezkak.

Lau, beltza, ruda eta erromero.

*"Que salga lo malo y entre lo bueno"*.

Julita, Julieta eta Julieta.

Esan du, orain nahiago dituela neskak!

Lasai, hartu behar duzun denbora.

Aldageletan bertan. Besteei ez zaie axola.

Eraman nazazu leku atsegin batera.

Eta besarkada bat eman dio.

Alegia, gauza bera.

# 2018ko EKAINA

Agenda www.artzape.eus webgunean eguneratzen dugu. Adi egon!

**2** Larunbata
**Haurren Binakako V. Elkano Saria Esku Pilota Txapelketa**
**Ordua:** *11:00*
**Lekua:** *frontoia*
**Antolatzailea:** *Gure Txeru*

**Sahatsaga Goiko festak. Auzo bazkaria**
**Ordua:** *14:00*
**Lekua:** *Sahatsaga Goia*
**Antolatzailea:** *Sahatsaga Goiko Festa Batzordea*
*Umeentzako jolasak egongo dira.*

**3** Igandea
**Zahartzaroari omenaldia**
**Ordua:** *goiza*
**Antolatzailea:** *Guraso Elkartea*
*Kalejira, meza nagusia, Musika Banda eta Abesbatzaren kontzertua, bazkaria, dantzaldia...*

**Emakumeen II. Elkano Saria Esku Pilota Txapelketa**
**Ordua:** *18:00*
**Lekua:** *frontoia*
**Antolatzailea:** *Gure Txeru*

**5** Asteartea
**"Voces desde los márgenes: descolonizando miradas sobre mujeres migrantes africanas", hitzaldia**
**Ordua:** *19:00*
**Lekua:** *Ulpiano Etxea*
**Antolatzailea:** *Elan Euskadi*
*Jeanne Rolande Dacougna ikerlari eta aktibista feministak emango du.*

**8** Ostirala
**"Honduras-Venezuela: las dos varas de medir de los medios", hitzaldia**
**Ordua:** *19:00*
**Lekua:** *Ulpiano Etxea*
**Antolatzailea:** *Eskubide Sozialen Karta*
*Javier Couso IUko europarlamentariak eskainiko du hitzaldia.*

**Musergoren kontzertu berezia**
**Ordua:** *19:00*
**Lekua:** *Herri eskolako aretoa*
**Antolatzailea:** *Musika Eskola Pepita Enbil Ziklo Musikalaren barruan.*

**9** Larunbata
**Getariako Musika Bandaren entsegu irekia**
**Ordua:** *10:00-12:00*
**Lekua:** *Bandaren lokalean*
*Zubiak eraiki eta haizezko instrumentuen presentzia indartzea du asmo Pepita Enbil Ziklo Musikalaren barruan antolatutako entseguak.*

**10** Igandea
**Giza katea**
**Antolatzailea:** *Gure Esku Dago*

**11** Astelehena
**Musikari hasiberri eta perkusio instrumentuen entzunaldi berezia**
**Ordua:** *18:00*
**Lekua:** *Bandaren lokala*
*Pepita Enbil Ziklo Musikalaren barruan.*

**12** Asteartea
**Instrumentu folklorikoaren entzunaldi berezia**
**Ordua:** *18:00*
**Lekua:** *Berdura plaza*
*Pepita Enbil Ziklo Musikalaren barruan.*

**13** Asteazkena
**Instrumentu melodikoen entzunaldi berezia**
**Ordua:** *18:00*
*Pepita Enbil Ziklo Musikalaren barruan.*

**Larrunera irteera**
**Antolatzailea:** *Arrantzale Zaharren Elkartea*
*Hondarribian bazkalduko dute.*

**14** Osteguna
**Katukale irakurle taldearen saioa**
**Ordua:** *18:30*
**Lekua:** *liburutegia*
**Antolatzailea:** *Katukale irakurle taldea*
*Garazi Arrularen "Gu orduko haiek" nobela landuko dute.*

***Gazteak musikari* solasaldi musikatua**
**Ordua:** *19:00*
**Lekua:** *Katxopa gaztelekua*
**Antolatzailea:** *Musika Eskola Pepita Enbil Ziklo Musikalaren barruan.*
*Hesian taldeko Zuriñe Hlidalgo eta Vendettako Pello Reparaz ariko dira; Maitane Subijana dinamizatzaile.*

**15** Ostirala
**Ikasturte amaierako festa**
**Antolatzailea:** *Zanbuka Guraso Elkartea*

**17** Igandea
**Mendi irteera: Bilbo-Urdunbide**
**Ordua:** *07:00*
*20,5 kilometroko ibilaldia. Izena ekainaren 14a baino lehen eman behar da turismo bulegoan (943 140 957).*

**Gantxegiko Kintetoa jazz kontzertua**
**Ordua:** *19:00*
**Lekua:** *Katrapona*
**Antolatzailea:** *Musika Eskola Pepita Enbil Ziklo Musikalaren barruan.*

**19** Asteartea
**Herritarren partaidetza arautzeko ordenantza sortzeko parte-hartze prozesuko bigarren saioa**
**Ordua:** *19:00*
**Lekua:** *Alhondiga*
**Antolatzailea:** *Getariako Udala*

**20** Asteazkena
***Itsasontzi baten* - Musika Eskolaren jaialdia**
**Ordua:** *18:30*
**Lekua:** *Iturzaeta Herri Eskola*
**Antolatzailea:** *Musika Eskola Pepita Enbil Ziklo Musikalaren barruan.*

**21** Osteguna
***Pepita(r)enbil(a)* ginkana**
**Antolatzailea:** *Musika Eskola Pepita Enbil Ziklo Musikalaren barruan.*
*Amaiera emateko merienda eta musika izango dira herriko plazan.*

***Neskatoak* dokumentala**
**Ordua:** *19:30*
**Lekua:** *Iturzaeta Herri Eskola*
**Antolatzailea:** *Eskubide Sozialen Karta*

**Kontzertuak: Mörpheme, Deletär eta Hell Division**
**Ordua:** *20:30*
**Lekua:** *Getaiko Gaztetxia*
**Antolatzailea:** *Getaiko Gazte Asanblada.*

**23-24** Lr.-Ig.
**San Juan Festak**
**Lekua:** *Balenciaga kalea*
*Programazioa www.artzape.eus webgunean jarriko dugu ikusgai.*

**28** Osteguna
***La vida esclava de las mujeres inmigrantes en Euskal Herria*, mahai-ingurua**
**Ordua:** *19:30*
**Lekua:** *Alhondiga*
**Antolatzailea:** *Eskubide Sozialen Karta*
*Zumaiako Malen Etxeako kideek hitz egingo dute.*

Saiazgetaria
HOTELA

BILERA GELA DAUKAGU

Roke Deuna 25
20808 **Getaria**
Gipuzkoa

T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

OSTOLAZA TALLERRA
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110 / 675 707 203
ostolazatallerra@gmail.com

ERABERRI
ERABATEKO BERRIKUNTZAK
680880905
676532067
GETARIA
www.eraberri.com

Josune Uzin Berasaluze
Fisioterapeuta
EFEO zenbakia: 1.100
eskura
fisioterapia zentroa
697 961 208
Elkano kalea 9, behea

BABEXA
Getariako dendari elkartea

Ganix Arakistain
OSTEOPATIA
943253634

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

ASKIZU
FAMILIA ETA TALDEENTZAT
ESKAINTZA BEREZIAK
943 83 36 41
www.itsasoa.eus | www.albergue-getaria.com
arazi@arazi.eus


## PUBLIZITATE TARIFAK

| Tamainak | Zenbatekoa |
|---|---|
| *4,3 x 4* | *12 euro* |
| *9 x 4* | *24 euro* |
| *13,6 x 4* | *36 euro* |
| *9 x 8* | *48 euro* |
| *13,6 x 8* | *72 euro* |
| *orri erdia* | *96 euro* |

# www.artzape.eus

## egin bazkide

Txeruko postontzian // info@artzape.eus

| | |
|---|---|
| Izen-abizenak: | |
| Helbidea-Herria: | |
| Telefonoa: | |
| Helbide elektronikoa: | |
| Kontu zenbakia: | |
| Banketxea: | |

Urtean 25€ - Getariatik kanpo bidaltzea 30€


SIZ

Servicios Informáticos Zarautz

Ekipo informatikoen salmenta

Mantenua

Informatika akademia

Webguneen diseinua

Urdaneta 2, behea · 20800 Zarautz
Tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com